

Armagintza industria ez da bide(zko)a

Bost urte pasa dira jada, Euskal Herriko esparru akademikoko 700 pertsona baino gehiagok, ekonomia ekologiko baten alde eginez "Euskal Herria PostCovid-19" izeneko manifestua sinatu genuela.

Manifestuan, pandemiaren abiapuntuak/jatorriak eta utz zitzakeen ondorioek kezkatzen gintuela genion, izan ere, biodibertsitatea eta baliabide naturak suntsitzen dituen eredu ekonomikoarekin hertsiki lotua zegoela ikusten bait genuen. Faktore anitzeko krisi globalean murgildurik geundelako konbentzimenduak bultzatuta proposatu genuen esku-hartzea, trantsiziorako lerro zehatzak biltzen zituen esku-hartzea, hain zuzen ere. Finean, ekologia-ekonomian oinarritutako eredu berri bat eraikitze bidean, "gizarte jasangarriago eta bidezkoago bat garatzeko beharra eta naturarekiko eta pertsona guztiekiko errespetuan oinarritutako ekonomiaren alde egiten genuen".

Bost urte geroago, mundu mailako egoera inoiz baino larriagoa da. Parisko 2015eko Gailurrean ezarritako 1,5 graduko muga gaindituta, 2024. urtea inoiz erregistratutako urterik beroena izan da. Are gehiago, gero eta gobernu gehiagok -tartean AEBetako administrazio berriak- hartutako ingurumen-konpromisoak albo batera utzi dituzte, eta klimaren krisia ukatzen duten jarrerak petrolio-orban baten moduan hedatzen ari dira. Horrek ondorio dramatikoak ditu, batez ere munduko herri eta pertsona zaurgarrienentzat, krisi sozioekologikoaren erantzukizun txikiena dutenentzat, alegia. Haatik, bide orria aldatu, eta eredu sozioekonomiko berri baten alde egitea inoiz baino beharrezkoagoa da.

Testuinguru honetan dakusagu Euskal Herriko ekoizpen- eta enpresa-sarea sakonetik eraldatzeko beharra. Benetako birmoldaketa eta berregituraketa behar da, ekologian, garapen jasangarria oinarri izango duena, eta sozialean, bidezkoagoa izango dena. Zer, zenbat eta nola ekoitzi erabakiko duena. Jakin badakigu, transformazio hori egiteko oinarriak eta baliabide egokiak ezarri beharko direla, zalantzarik gabe, sektore, lan, lurralde edo ingurumenaren arloan sor daitezkeen tirabirak behar bezala kudeatzeko ahalegin kolektibo handia egin beharko baita.

Horregatik, dokumentu hau sinatzen dugunok, Euskal Herriaren etorkizuna oztopa dezakeen arriskuaz ohartaraztera gatoz, eta gure egiten dugu "globalki pentsatu eta tokian bertan jardun" esaldia.

Harriduraz irakurri dugu "Zedarriak" foro ekonomikoak 2025. urtearen hasieran, lehen sektoreko armagintza sektoreak eskaintzen dituen aukerei buruzko eztabaidari heltzea proposatu duela. Eufemistikoki "defentsaren industria" deitu dutena gure herrian berrindustrializazio prozesu berri baten bultzadarako elementu gisa proposatuz, hain zuzen ere. Harriduratik haserrera pasa gara ordea, instituzioetako arduradunek ideia horrekin bat egin dutenean eta, adibidez, Lan eta Enpleguko lehendakariordea, Eusko Jaurlaritza ordezkatzuz, aukera horren alde agertu denean. Ideia guztien inguruan eztabaidatzea ariketa arrazoitua eta zentzuzkoa izan beharko litzatekeen arren, harrigarria iruditzen zaigu euskal gizartearentzat lehentasunezko zerbait bezala ikustea.

Planetaren mugak zeharo gainditzen ari diren honetan, eta gizarte- eta ekologia-trantsizioa egikaritzeko ekintzetara igarotzea inoiz baino premiazkoagoa denean, armagintza-industria izango al da gure industria estrategiaren ardatza? Hori al da gizarteak eta gure ekonomia-ereduak trantsizio ekosozialari egiten dioten ekarpena? Eta hori al da hurrengo belaunaldi iei utzi nahi diegun ondarea?

Gerrarako industriaren alde egitea ez da aukera bat, arrazoi etiko, ingurumeneko, ekonomiko eta sozial ugarirengatik ez da. Euskal Herriko ekonomia armagintza sektorean oinarritzea eskandalagarria da. Milaka pertsonaren heriotzan edo herrien genozidioan oinarritutako garapen ekonomikoa proposatzen da, eta gure herriaren oinarri etikoarekin ez dator bat. Munduaren "sekuritizazioan" inbertitzeak, Europatik egiten ari den lez, potentzia geopolitiko handien boterea mantentzea eta planetako baliabide naturalak xahutzen jarraitzea baino ez dakar. Politika publikoak, eta neurri batean hala diseinatzen badira ere, printzipio, balio eta orientazio etikoak kontuan hartuta erabaki behar dira. Hau adibide garbia baita, non, interes orokorrek, printzipio etikoek eta gizarte-erantzukizunek, etekinen maximizazioa mugatu eta bideratu behar dutela, eta horiek dira politika publikoen printzipio gidari nagusiak. Edozein gizarte-estatuk beste hainbat eremutan egiten du jada: gizarte-zerbitzuetan, hala nola hezkuntzan edo osasunean, errenta-prestazioetan, gizarte-babeseko etxebizitzetan eta abarretan. Horregatik, ez da zilegi industria militarra babestuz Eusko Jaurlaritzak edozein printzipio etiko edo gizarte-erantzukizuneko printzipio zapaltzea. Kontraesankorra da, bai, "Ekonomia pertsonen zerbitzura", "balioak dituzten enpresak, etorkizuna duen gizartea" gisako esaldiak lau haizetara zabaltzea, eta "garapen jasangarriaren helburuekin" konprometituta gaudela aitortzea. Eusko Jaurlaritzako arduradunak ez al dira lotsatzen ingurumenaren defentsaren aldeko urteetako instituzio diskurtso zein konpromisoak zangotrabatzean? Klima aldaketaren ukazioa aldarrikatzen dutenen sostengatzaile izango al gara? Dagozkigun konpromiso etiko eta ingurumeneko guztiak baztertuz?

Gerraren ekonomiaren alde egiteak gastu publiko militarra handituko du, izugarri gainera, eta ondorioz, inbertsio publikoak murriztuko dira, trantsizio sozio-ekologikorako eta gure ekonomiaren deskarbonizazioa bermatzeko beharrezkoak direnak hain justu.

Era berean, industria militarra bultzatzea gastu soziala murriztea da, eta, beraz, osasuna, hezkuntza edo zaintza publikoen sistemaren hobekuntzarako beharrezkoak diren inbertsioen murrizketa dakar. Armagintza sektorean inbertsioak izango dituen ondorioak positiboak izango direla pentsatzea ikuspegi labur eta elkartasunik gabea da, ez dator bat egungo garai eta behar sozialekin, eta Euskal Herriko herritarren beharrei ere ez die erantzuten.

Ekonomia ez dugu diru-metaketaren kateak lotzeko erabiltzen, baizik eta bizitza sostengatzen duen eta gizarte bidezkoago, inklusiboago, berdina goa eta iraunkorragoa lortzen laguntzen duen ehuntzat/saretzat baizik.

Hori dela eta, gizarte osoari, eta bereziki erantzukizun politiko, instituzional, ekonomiko, sindikal eta sozialak dituztenei, hausnarketarako deia egiten diegu. Norabide horretan aurrera egiteak amildegira garamatza. COVID-19aren pandemia atzean geratu zen, baina hortzetaraino armatuta egotea ez da izango balizko pandemia berrietatik eta are gutxiago krisi klimatikotik defendatzeko irtenbidea. Ez diezaiogun geure buruari beldurra inokulatzen utzi, eta ez gaitezen etika eta giza garapenaren aukerak suntsitzen dituen erreakzio-uholdeen mende erori. Sozialki bidezkoagoa eta ekologikoki jasangarriagoa den beste eredu ekonomiko bat posible da, zalantzarik gabe. Neurri handi batean, oraingo eta etorkizuneko beharrekin bat datozen estrategia ekonomikoak finkatzean datza.